



OÑATI
dabilen herria

Espediente-kodea: 2023NOTI0817

Oñatiko Udala

Zbk./Nº 2023-2035

Data / Fecha 2023/09/25 08:49

Impressa / Imprimir

OÑATIKO KALE KATU ELKARTEA
OÑATI
00000 - OÑATI
GIPUZKOA

AKORDIO JAKINARAZPENA

Udal Osoko Bilkurak 2023ko irailaren 21ean egindako bileran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen:

“7.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Kale Katu Elkartearekin (OKKE) lankidetzarako hitzarmena onartzea, kaleko katu-koloniak kudeatzeko eta dirulaguntza zuzena eta ez izenduna onartzea, zerbitzuak informazio batzordean diktaminatua 2023ko uztailaren 19an.”

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Oñatiko Kale Katu Elkartearekin (OKKE) lankidetzarako hitzarmena onartzea, kaleko katu-koloniak kudeatzeko eta dirulaguntza zuzena eta ez izenduna onartzea.

XABIER BERRIDI IRIARTEK, Oñatiko Azpiegitura teknikariak ziurtatzen du 2023ko uztailaren 19ko dataz Zerbitzuetako Batzordeak honako **DIKTAMENA** eman zuela:

“Udalaren eta Oñatiko Kale Katu Elkartearen OKKE arteko lankidetzaren hitzarmena

Herritar talde batek Oñatiko Kale Katu Elkartea OKKE sortu du, katuenganako sentsibilizazio berezia duten pertsonen osatua. Kaleko katuek bizi duten egoera penagarria ikusita, katuen ugalketa kontrolatu eta ongizatea bermatzeko helburuarekin Udalarekin elkarlanean jardun nahi dute, animalien babeserako legeak dioena betez.

Beraiekin pare bat bilera egin ondoren, Udalarekin lankidetzaren hitzarmen bat egitea proposatu honako betebeharrak gain hartzeko:

- Juridikoki (“Ley 9/2022 sobre protección de animales domésticos” legearen betetzea, albaitaritza-zerbitzuak herrikoekin egitea...)
- Ekonomikoki (dirulaguntza eskaera)
- Jarduteko protokoloan Udaltzaingoarekin eta kale-garbitzeta zerbitzuen esku-hartzea

9/2022 Legearen arabera udal zerbitzu bat da eta 14. artikuluan dio “Udalei dagokie abandonatutako eta galdutako animaliak biltzea, bai eta zaintzea ere, titularrek berreskuratu arte edo hirugarrenei laga arte.”

Lege honek “zerbitzu” hori elkarten bidez elkarlanean prestatzeko aukera ematen du, hitzarmen baten bidez; 28.3 artikulua honela dio “Katu-kolonia kudeatzen duen erakundeak edo elkarteak lankidetzaren hitzarmen bat sinatuko du dagokion udalarekin eta bere gain hartuko du bertan sinatutakotik erator litekeen erantzukizuna.”

ESKUE8a7c16-c1ff-40bc-8be1-265804a1b65d

Lankidetza-hitzarmen zirriborroa aztertuta, puntu hauek jasoko dituen sinatzea proposatzen da OKKE elkartearekin:

- ④ Xedea, katu-kolonien kontrola eta jarraipena egitea da, kudeaketa etiko baten oinarrituta eta, horretarako, CER metodologia erabiliko da (harrapatzea, esterilizatzea eta itzultzea)
- ④ Katuak, Oñatiko albaitaritzaklinikan esterilizatuko eta markatuko dira eta txandaka egingo dituzte MIMAU Albaitaritzak eta ALOÑAK
- ④ Katuak kolonia kontrolatuan utzi aurretik, behar bezala identifikatuko dira, mikrotxip bidez, eta AIEOn inskribatuta eta hauen adopzioa sustatuko da
- ④ Katuak baimendutako elikadura-puntuetan bakarrik elikatuko dira eta bide publikoan ezin izango da janaririk utzi
- ④ Galdutako edo abandonatutako animaliak, Udaltzaingoarekin eta garbiketa-zerbitzuarekin elkarlanean jasoko dira jarduketaprotokoloaren arabera
- ④ Hitzarmenaren indarraldian sortutako gastu eta konpromisoen gastuak ordaintzeko 7.000 €ko diru-laguntza onartuko da eta dirulaguntzaren % 60a, gutxienez, animaliak esterilizatzeko izango da
- ④ Hitzarmenak urtebeteko indarraldia izango du eta beste urtebetez luzatzeko aukera

Gaia aztertu ondoren eta Zerbitzu Batzordearen irizpena aldekoa dela kontuan hartuz, Udal Plenoari eskatzen dio Udalaren eta Oñatiko Kale Katu Elkartearen OKKE arteko lankidetza-hitzarmena onartzea."

40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena ikusita, eta bereziki, honako artikulua hauek nabarmendu behar dira:

"-47. artikulua. Definizioa eta hitzarmen motak.

1. Hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera.

Ez dira hitzarmenak hartzen jarduketako protokolo orokorrak edo antzeko tresnak, baldin eta eduki orokorreko asmoen deklarazio hutsak badakartzate edo administrazioek eta alderdi sinatzaileek helburu komun batekin jarduteko duten borondatea azaltzen badute, betiere haien ondorioz ez bada konpromiso juridiko zehatz eta eskatzeko modukorik formalizatzen.

Hitzarmenek ezingo dute xedetzat hartu kontratuen berezko prestazioak. Xede hori hartuz gero, haien izaera eta araubide juridikoa sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusita dagoenari lotu beharko zaizkio."

-48. artikulua.

3. Hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezen lagundu, eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria bete.

8. Alderdiak adostasuna emanez burutzen dira hitzarmenak.

50. artikulua. Hitzarmenak sinatzeko nahitaezko izapideak eta haien ondorioak.

1. Autonomia-erkidegoetako legeriak aurreikus ditzakeen berezitasunak gorabehera, hitzarmenak justifikazio-memoria bat beharko du, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz bestelako izaera, eta lege honetan aurreikusita dagoena betetzea.

49. artikulua. Hitzarmenen edukia.

h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregela hauek kontuan hartuta:

1.a Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.

2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea."

Halaber, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen abenduaren 27ko **32/2018 Foru Dekretuak**,

3. artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

"1. Tokiko sektore publikoaren jardura ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratortzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela."

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikuluko hauek:

22.3 artikulua: "*Honako diru-laguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira:*

C) *Salbuespen gisa, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen dituzten bestelako diru-laguntzak, edo behar bezala justifikatutako eta deialdi publikoa zailtzen duten bestelako diru-laguntzak."*

30.2 artikulua: "*Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiria edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira."*

34.3 artikulua: "*Onuradunak diru-laguntzaren xede den jardura, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.*

Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiaren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da."

Gaia aztertuta eta zerbitzuak batzordearen oniritziarekin, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Oñatiko Kale Katu Elkartearen (OKKE) eta Oñatiko Udalaren arteko lankidetzarako hitzarmena onartzea eta horretarako adostasuna ematea, espedientearen dagoen dokumentuaren arabera.

Bigarrena.- Hitzarmen honek, urtebeteko iraupena izango du, eta beste urtebeteko luzapena izan dezake, bi alderdiek espresuki hori adosten baldin badute. Iraupena bukatutakoan, automatikoki bertan behera geratuko da.

Hirugarrena.- Zerbitzuak teknikaria izendatzea Oñatiko Udaleko arduradun, hitzarmenaren jarduketan jarraipena egiten laguntzeko eta hitzarmen hau betetzean sor daitezkeen gorabeheriei erantzuteko.

Laugarrena.- Hitzarmen honek eragiten duen gastua onartzea (7.000€) dagokion diru-atalaren eta bere lotespen-mailaren kargura, kontuan hartuta dirulaguntza emateko ezinbestekoa dela kreditu egokia eta nahikoa egotea diru-laguntza emateko ebazpena emateko unean.

Bosgarrena. - Ebazpen hau interesdunei eta kontu-hartzaileari eta diruzainari jakinaraztea.

Seigarrena. - Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.

Zazpigarrena. - Diru laguntza zuzen eta ez izendun hau, Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea erabakitzea.

Gaia aztertuta, eta zerbitzuak informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute. “

Jakin dezazun eta behar diren ondorioetarako adierazten dizut hori, Oñatin, sinadura digitalean ageri den datan.

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023NOTI0817-OB-jakinarazpen elektronikoa/PM-notificación electrónica

Sinatzailea 1 / Firmante 1: IDOIA AIERBE LIZARRALDE - 72571588X

ZINEGOTZIA

Data / Fecha: 2023/09/22 15:26:07

INPUGNAKETA-BIDEAK

Honen berri ematen dizu(e)gu dagozkion ondorioetarako. Bide batez, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko AUZI-ERREKURTSOA aurkez dezakezu Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, Donostian, BI HILABETEKO EPEAN, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1.998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. c) artikuluekin bat etorriz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekursoaren aurretik, **BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA** aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari (Helmuga digitaleko Kodea L01200599) **HILABETEKO EPEAN** jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsok aurkezteari kalterik egin gabe.

MEDIOS DE IMPUGNACION

Lo que se le/s notifica a Vd/s. a los efectos procedentes, significándole/s que, contra el citado acto expreso, que es definitivo en vía administrativa, podrá/n Vd/s. interponer en el plazo de **DOS MESES**, contados desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, **RECURSO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO** ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo con sede en Donostia-San Sebastián, a tenor de lo establecido en los art. 8 y 46 de la Ley 29/1.998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en concordancia con el art. 114.c) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

No obstante, con carácter potestativo, y previo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución expresa que se le notifica, podrá/n Vd/s. interponer **RECURSO DE REPOSICIÓN**, ante el mismo órgano que lo dictó (Código digital de destino: L01200599), en el plazo de **UN MES** que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.

Todo ello, conforme a lo establecido en los artículos 123, 124 y concordantes de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, anteriormente señalada, y sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estimare/n oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.

